AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4846

440/2013 DEKRETUA, azaroaren 5ekoa, Gorka Erlantz Zorrozua Aierbe jauna Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kide kargutik kentzea xedatzen duena.

6 urteko agintaldia 2013ko urriaren 15ean amaitu zenez, batzordekide izateari utzi egin behar dio, betiere Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 8.3 eta 8.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko azaroaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Gorka Erlantz Zorrozua Aierbe jauna Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kide kargutik kentzea, eta bide batez, eskerrak ematea egin duen lanagatik.

Bigarrena.– Esandakoa gorabehera, aipatu batzordekideak dagozkion egitekoak beteko ditu, harik eta agintaldi berria beteko duen ordezko batzordekidea karguaz jabetu arte.

Hirugarrena.– 2013ko urriaren 15etik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko azaroaren 5ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.